**ONLINE IKUSI, ESKAERA EGIN…**
**ETA KALEAN EROSI!**







# aterpe

Merkatarien, ostalarien, gremioen
eta profesionalen atari digitala









## Ongi etorri ATERPEra,

Gure webguneak herriko merkatarien, ostalarien, gremioen eta profesionalen bidelagun eta aterpe izatea nahi dugu. Horretarako, ATERPE sortu du, gure erabiltzaileak saltokiekin harremanetan jartzeko.

Webgunean integratuta egongo den erakusleiho digital honetan, merkatariok zuen produktuen eta zerbitzuen inguruko jakinarazpen eta oharrak argitaratuko dituzue, eta gure erabiltzaileek horiei buruzko **informazio gehiago eskatzeko zein eskaerak edo erreserbak egiteko aukera izango dute.**

Esku liburu honetan, ATERPEko zure orrialdea nola kudeatu dezakezun azalduko dizugu. Erraza, intuitiboa eta erabilgarria da oso. Edonork kudeatzeko moduko administrazio gunea sortu dugu, egunero eskuan dugun gailua oinarri duena: sakelako telefonoa.

1. Zure enpresaren irudia



2. Izena

# Montecarlo jatetxea

3. Helbidea

Nafarroa kalea, 15 , 20800 **Zarautz**

4. Kontaktua

Idatzi Whatsapp-a | Deitu 943-08-06-88

5. Web helbidea eta sare sozialak

mazkue@ukt.eus | http://www.zarauzkohitza.eus

6. Logoa

MONTECARLO

7. Deskribapen laburra

7.1 Kanpo gune baterako lotura jartzeko aukera

Familia negozioa, 3. generazioa lanean, betiko jakiak ukitu berezi batekin prestatzen.

Ospatu gurekin zure ezkontza, bataio, jaunartze, lagunarteko bazkari eta enpresako otorduak.

3 jangela ditugu: 100 lagun, 50 lagun eta 20 lagun hartzen dituztenak.

Terraza: aire libreko jangela eta aterpekoa




8. Bideo baten URLa

9. Momentuko eskaintzak

10. Jaso ta Jan aukerak (soilik taberna eta jatetxeentzat)

11. Ordutegia


Irekiera orduak

| | |
|---|---|
| **Astelehena** | 09:00-13:30 / 17:00-20:00 |
| **Asteartea** | 09:00-13:30 / 17:00-20:00 |
| **Asteazkena** | 09:00-13:30 / 17:00-20:00 |
| **Osteguna** | 09:00-13:30 / 17:00-20:00 |
| **Ostirala** | 09:00-13:30 / 17:00-20:00 |
| **Larunbata** | 09:00-13:30 |
| **Igandea** | Itxita |

**Kokapenaren mapa**




12. Geolokalizazioa




# Prest? Has gaitezen!

**Telefonoan eta telefonoarekin**

Eskuko telefonoa da ATERPEko zure orrialdea kudeatzeko erreminta aproposena.

Bertatik sar zaitezke zure orrialdeko administrazio gunera, modu intuitibo eta errazean informazioa eta datuak igotzeko eta eguneratzeko.

Zer egin dezakezu?

- Zure orrialdea eguneratu.
- Zure eskaintzak igo.
- Jaso eta Jan eskaintzak igo (jatetxe eta tabernentzat)

*Oharra: ordenagailutik ere kudeatu daiteke gunea, baina eskuko telefonoa erabiltzea gomendatzen dizugu.*

## 1. ORRIALDEARI IZENA EMAN

ATERPEko orrialdea kudeatzeko izena eman behar da.

Horretarako:

1. Bidali mezu bat aterpe@gukazerbitzuak.eus helbide elektronikora nor zaren adieraziz eta zure txokoari zer izen jarri nahi diozun zehaztuz.

**Argi!**

| **BEHIN IZENA EMANDA, EZIN IZANGO DUZU HORI ALDATU** |
| --- |

Izena esleitzen zaizunetik aurrera, zure orrialdera zuzenean joango zara honakoa jarrita:

https://hedabidea.eus/gida/komertzioak/**ZUREIZENA**

# 2. ORRIALDE PROPIOA KUDEATU

ATERPEko orrialdea nahi duzun bezala kudeatu dezakezu.

Horretarako…

1. Zure herriko webgunean sartu, eta egin *klik* goian eskubialean.



**Orrialde honetan topatuk duzunaren azalpentxo bat.**

Behin izena emanda, zure orrialdea kudeatzeko hiru botoi izango dituzu bukaeran.

Joan orrialdearen behekaldera.

Zapaldu lehendabiziko botoia orrialdea kudeatzeko.

Kudeatu negozioa



Orrialde honetan, jarraitu pantailan ageri diren argibideak.

Lehen azaldutako hauexek igotzeko balioko dizute:

- Logotipoa
- Deskribapena
- Bideoaren esteka
- Argazkiak
- Kontaktua
- Sare sozialak
- Ordutegia

(Berrikusi 4-6 orrialdeak kokapenak ulertzeko)



Deskribapenaren atalean dauden botoien deskribapenak honakoak dira:

- Desegin
- Berregin
- Lodia
- Etzana
- Azpimarratua
- Bulet zerrenda
- Zenbaki zerrenda
- Esteka txertatu/editatu
- Kendu esteka
- Iturburu kodea
- Aurrebista
- Ezabatu formatua
- Hautatu dena

# 3. ESKAINTZAK

Eskaintza berezi bat duzu? Zerbitzu edo produktu berri batekin hasi zara lanean? Denboraldi berriko arropa aurrerapena jaso duzu? Udaberriarekin batera terraza zabaldu duzula… Jakinarazi zure bezeroei.



**Udako arropen outleta**
PAGOETA KIROL DENDA ( Zarautz )
Kirol marka ezagunenetako arropa d...



**Erakusketa aldaketa**
GOENAGA ITURGINTZA ( Zarautz )
Erakusketa berria jarri dugu. Zato...



**Pintxo morunoak (5) - 7 euro**
ALBERDI HARATEGIA ( Zarautz )
Txerri, txahal eta oilasko haragia...

# Nola igo?

Behin zure orrialdea osatuta, goazen eskaintzak igotzera.

Joan orrialdearen behekaldera.

Zapaldu bigarren botoia eskaintzak gehitzeko.






Berriz ere, jarraitu pantailan ageri diren jarraibideak.

Kanpaina atalean, zein eskaintza mota igoko duzun adierazi beharko duzu.

Amaitzean, **GORDE** sakatu.

(Berrikusi 4-6 orrialdeak kokapenak ulertzeko)







Lotura 7.1

Behin sortutakoan, eskaintza bakoitza kudeatu ahal izango duzu behekaldean ageri diren botoien bitartez.

→ Editatu

→ Ezabatu



**Kerastase produktuen eskaintza berezia**

KONTXI ILE-APAINDEGIA ( Zarautz )

3 edo 4 produktu erosi eta %15eko ...

# 4. JASO TA JAN IGO (JATETXE ETA TABERNENTZAT)

Jatetxe edo taberna bat zara? Etxera eramateko zerbitzua duzu? Jakinarazi zure bezeroei.

Aurreko atalak bete ostean, gehitu ditzagun Jaso ta Jan aukerak.



Aurretik emandako pausoen antzerakoak eman beharko dituzu berriz ere:

Joan zure komertzioaren behekaldera.

Zapaldu hirugarren botoia orrialdea Jaso ta Jan gehitzeko.






Atal honetan ere, jarraitu pantailan ageri diren jarraibideak.

Ez ahaztu eskaintzetan dituzun aukerak hemen ere ageri daitezkela.

Amaitzean, **GORDE** sakatu.



Zure emaitza ikusita, hemen ere baduzu aukera ezabatu edota eguneratzeko.

→ Editatu

→ Ezabatu



## Gogoratu!

Atal honi esker, jendeak zuzenean zurekin harremanetan jartzeko aukera izango du, baita janaria etxera eramateko edo lokalean bertan jasotzeko eskaera egiteko aukera ere.



# EDUKIAK IGOTZEKO IRIZPIDEAK

1. Pentsatu zer produktu/zerbitzu igo nahi duzun.
2. Zer mezu eman nahi duzu? Zer nabarmendu nahi duzu? Zerbitzu edo produktuaren ezaugarriak, prezioa...
3. Zer ekintza gauzatzera bideratu nahi duzu bezeroa? Harremanetan jartzera, dendara bisita egitera, erosketa egitera… Adierazi.
4. Urtaroa eta sasoia kontuan izan.
5. Eskaintzen kasuan, aktibo diren kanpainen estekak begiratu, eta aukeratu zure produktuari dagokiona.
6. Euskaraz idatzi. Gure hedabideetako irakurleak euskaldunak dira.
7. Testu laburrak eta erraz irakurtzekoak idatzi. Erabili testu editorea; letra larriak, beltzean jarri nabarmendu nahi duzuna…
8. Zaindu argazkiak. Argazki on batek erabiltzailearen arreta handitzen du.
9. Antolatu. Osatu zure publikazioen egutegia, prestatu eta igo.

**Ez beldurrik izan, probatu. Ekinez eta eginez ikasten da!**

# HITZ GAKOETARAKO LAGUNTZA

Azken aukerak
Azken pareak
Neguko aurrerapena
Itxita; asteko atseden eguna
Itxita; oporrak
Oporretatik bueltan gara
Etxeko berezitasuna

X erosteagatik X opari
Aukera handia/zabala
Aukera paregabea
Sekulako aukera
Ordaintzeko erraztasunak
Erraz ordaintzeko era/modua
Beherapen handiak

Egundoko merkealdia
Eskatu ordua eta eguna
Eskatu zure hitzordua
Zatoz gurera
Eskaintza
Eskaintza berezia
Ez ezazu galdu

# TRESNA LAGUNGARRIAK ETA ESKURAGARRI DITUZUNAK

**Itzultzaileak:**

- Elia:

  https://elia.eus/traductor

  Menu bihurgailua:
  http://www.donostiaeuskaraz.eus/platerean

**Merkatarientzako materiala:**

https://www.azkoitia.eus/udala/sailak/euskara/argitalpenak/merkatarientzat-materiala

**Argazki editoreak: webguneak eta app-ak.**

- Canva → https://www.canva.com/
- Snapseed (mugikorrerako)

  Google Play → https://play.google.com/store/apps/details?id=com.niksoftware.snapseed&hl=es&gl=US&pli=1

  Apple → https://apps.apple.com/es/app/snapseed/id439438619

- Picsart → https://picsart.com/es/photo-editor/

# ARAZOAK DITUZU ZURE ORRIALDEA KUDEATZEKO?

Edukiak igotzerakoan arazoak dituzu?

- Ezin zara kudeaketa gunean sartu.

- Edukia igo duzu, baina ez da ondo ikusten.

-...

Idatzi helbide honetara, eta lagunduko zaitugu.

**aterpe@gukazerbitzuak.eus**

ESKERRIK ASKO PARTAIDE IZATEAGATIK!

## Espero dugu ATERPE honek eskaintzen dizun babesaz gozatzea

Hemen gaituzu behar duzun guztirako!